



Gipuzkoako
Herritarren Batzarra.
**Landa-eremua
eta Klima.**

GIPUZKOAKO HERRITARREN BATZARRA

Informazio Kit-a

2022ko urria



Aurkibidea

1.Sarrera	3
Zer da Herritarren Batzar bat?	3
Nola egingo duzue lan?	4
Nor dago Batzar honen atzean?	5
Zergatik Gipuzkoako Herritarren Batzarra?	5
Zein da zuen zeregina?	6
2.Zereginari ekiteko oinarritzko informazioa	7
Lurzoruaren erabilera eta pisu ekonomikoa	7
Araututako jarduera eta Aldundiaren eskumena	10
Basogintza-, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen onurak	10
Erronkak eta zailtasunak	12
Arriskuak eta erantzukizuna klima-aldaketan	15
Etorkizuneko agertokiak	17
1.Eranskina. Informazio praktiko gehigarria	18
2. Eranskina. Herritarren Batzarra antolatzeko eta ezartzeko batzordeak	20

1. Gipuzkoako Landa Inguruneari eta Klimari buruzko Herritarren Batzarrerako sarrera

Ongi etorri! Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizugu batzar honetan parte hartzeagatik, prozesu honetan parte hartzea funtsezkoa baita Gipuzkoako lehen sektorearen etorkizunerako. Informazio-“kit” hau lehen deliberazio-saioa baino lehen egitasmoaren testuingurua ezagutzeko lagungarria izango da. Informazio hori guztia zehatz-mehatz azalduko da laneko lehen bi egunetan, baina uste dugu baliagarria izan daitekeela alde zehatz izatean. Ziur gaude dokumentu hau irakurtzen denbora pixka bat eman badezakezu, dena ezagunagoa eta arinagoa izango zaizula saioetan. Irakurtzera animatzen zaitugu.

Zer da Herritarren Batzar bat?

Lehenik eta behin, munduko beste herrialde ugarietan asko erabiltzen den batzar formatu batean parte hartuko duzula ulertzea nahi dugu. Formatu horri “Herritarren Batzarra” deitzen zaio.

Herritarren Batzarra parte-hartze demokratikorako tresna bat da, eta zozketa bidez hautatutako eta gizartearen deskribatzaileak diren pertsonen gai baten inguruan lan egiten dute gobernuari gomendioak emateko. Zuek zarete pertsona horiek, hemendik aurrera batzarkideak izango zarete. Kasu honetan gobernuak Gipuzkoako Foru Aldundia da.

Gizartea deskribatzen duen lagina. Pertsona talde bat irizpide sozio-demografiko batzuk kontuan hartuta eratzten denean. Gipuzkoako Herritarren Batzarraren kasuan, irizpide hauek erabili dira: *sexua, adina, eskualdea, hezkuntza-maila, ohiko hizkuntza eta tokiko produktuekiko jarrera.* Horrek esan nahi du, adibidez, Gipuzkoan 35-49 urte arteko pertsonak gizartearen %23 badira, batzarrean ere ehuneko hori bete beharko dela.

Nola egingo duzue lan?

Herritarren Batzarrak talde txikietako lankidetzak (8 pertsona inguru) eta osoko bilkuretako lana (kasu honetan 32 pertsonak batera) uztartzen ditu beti. Lana hainbat fasetan egituratuko da.



Lehenengo fasea lehen eta bigarren asteburuan egiten da. Informazio-fasea da. Zuen denbora gaiari buruzko ezagutza espezifikoak dituzten pertsonen entzuten, aurkezpenak ulertu eta ikasten, galderak egiten eta gainerako parte-hartzaileekin garrantzitsua zer den adosten emango duzue. Informazio horri guztiari buruz hausnartzea eta gainerako parte-hartzaileekin hitz egitea oso garrantzitsua izango da bigarren faserako. Fase horretan, dilemari nola aurre egin eta horri buruzko erantzunak aztertu behar dituzue.



Fase hau ideiak sortzeko fasea da. Fase honetan, galderak planteatzen duen dilema jorratuko duzue eta horri aurre egiteko ideiak proposatuko dituzue. Ondoren, ideia horiek taldekatu, kalteak eta onurak baloratu, eta lehetsi egingo dituzue; helburua da ideia sendoak sortzea.



Amaitzeko, azken fasea gomendio-fasea da. Horretan, gomendioak idatziko dituzue, ideia garrantzitsuenetan eta taldean adostasun handiena lortu duten horietan oinarrituta.

Lan hori guztia egiteko, erraztaile-talde bat izango duzue alboan. Talde honek bakoitzaren eta Herritar Batzar osoaren onena ateratzeko asmoarekin jardungo du. Hori dela eta, talde-lana dinamizatzen adituak diren pertsonen osatzen dute. Elkarlanerako eta erabaki kolektiboak hartzeko tresna ugari ere emango dizkizute. Saiotei buruzko informazio praktikoa gehiago nahi izanez gero, kontsultatu 1. eranskina dokumentuaren amaieran.

Garrantzitsua da ulertzea prozesu honen helburua ez dela zuek aditu bihurtzea, baizik eta gaiari buruzko oinarritzko ezagutza izatea, eta zuen balioetan eta bizi-esperientzietan oinarrituta, horri buruzko erabakiak hartzea. Aurrerago ikusiko duzue, landa-inguruneak lurraldearen % 93 hartzen du, eta nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektoreak horren % 61a kudeatzen du. Batzar honen erabakiek eragina izan dezakete sektorean eta, ondorioz, lurraldea kudeatzeko moduan. Aipatutako lur-eremuak Gipuzkoako paisaia, herriak eta, azken batean, nortasunaren zati bat irudikatzen du. Ez al duzu uste gai hau nahikoa garrantzitsua eta zeharkakoa dela gipuzkoarrek beren ahotsa entzunarazteko? Gipuzkoako gizarteak erantzunkide izan beharko luke lehen sektorea mantentzean?

Nor dago Batzar honen atzean?

Batzar hau Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu du. Aldundiak zure parte-hartzea behar du galderari erantzuteko gomendioak lortze aldera. Batzarra antolatu ahal izateko, erakundeak hainbat erakunde publikoz eta pribatuz osatutako talde eragile batekin lan egiten du. Erakunde horiek diseinuko eta inplementazioko zeregin guztiez arduratzen dira, prozesu hori behar bezala gauzatu dadin.

Herritarren Batzarra zorrotzasunez diseinatzeko bi Batzorde sortu dira: Jarraipen Batzordea eta Edukien Batzordea. Lehenak, prozesua bidezkoa eta gardena dela bermatzen du, eta egitasmo osoa gainbegiratzen du. Bigarrenak, zuek eta saioetan hitz egingo duten hizlariak aurkeztuko duten informazioa adosten du.¹

Zergatik Gipuzkoako Herritarren Batzarra?

Landa-eremuko lehen sektorean (nekazaritza, abeltzaintza eta basoen kudeaketa) bizi eta lan egiten duten pertsonak Gipuzkoako lurralde zati gehiena kudeatzen dute eta zailtasuna dute beren jarduerarekin jarraitzeko. Hori gutxi balitz, landa-ingurunea eta nekazaritza-sektorea bereziki ahulak dira klima-larrialdiaren aurrean. Sektorea ekonomia liberal eta global batean bere burua mantentzeko gai ez bada, honako dilema edo galdera hauek planteatzen dira: Gipuzkoako gizarteak landa-eremuko lehen sektorea zaindu nahi al du? Gipuzkoako gizarteak zer ekarpen egin diezaioke sektoreari larrialdi klimatikoaren inpaktuei aurre egin ahal izateko eta, aldi berean, sektorearen errentagarritasuna hobetzeko?

¹Ikus 2. eranskina dokumentuaren amaieran, batzordeen osaera ezagutzeko.

Zein da zuen zeregina?

Talde eragileak eta aldundiak galdera hau egitea erabaki dute, batzar honen zeregina zehazteko. Zuen zeregin kolektiboa galdera marko horri erantzutea izango da, batzarraren azken lan-saioan Gipuzkoako Foru Aldundiari emango dizkiozuen gomendioen bidez.

Nola bermatu dezakegu Gipuzkoako nekazal-jarduera klima-larrialdiari aurre egiteko?



“Nekazal-jarduera” abeltzaintzarekin, nekazaritzarekin eta baso-kudeaketarekin edo basogintzarekin lotutako jarduera sozio-ekonomikoa da.



“Larrialdi klimatikoa” hurrengo urteetan gertatuko diren klimaren aldaketei dagokie (tenperatura, prezipitazioa, haizea, etab.), eta aipatutako nekazaritza-jarduera aldakera horietara egokitu beharko da, eta horietan lagundu dezake.

2.Zereginari ekiteko oinarrizko informazioa


Edukien Batzordeak oinarrizko informazioa jasotzeko atal hau idatzi du arazoa hobeto uler dezazuen.

Lehenik eta behin, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektoreak lurzoruaren erabileran duen garrantzia eta ekonomian duen pisua azaltzen dira.

Lurzoruaren erabilera eta pisu ekonomikoa


Aurrerago ikusiko dugunez, nekazaritza-jarduerak ez du pisu handirik eskualdeko ekonomian, baina eragin handia du lurraldean, Gipuzkoako lurzoruaren erdia baino gehiago erabiltzen baitu. Lehen grafiko honetan lurzoruaren kategoriak ikus ditzakezu.

Lurzoru kategoriak




Nekazaritzako erabilera % 1,2 da, abeltzaintzakoa % 23,5 (larreak) eta zurgintzakoa % 36,8. Guztira, hori % 61,60 da, grafikoan berde argiaren hiru tonuetan azaltzen da. Basoa eta sastraka edo mendia gehituz gero, landa-eremuko lurzoru-motak osatzen dituztenak, % 92,5era iristen da.

Landa-eremuko lurzoru-motak





“Landatutako basoaren” % 85 baino gehiago intsinis pinua edo pinu radiata da.



Nekazaritza- eta basogintza- sektorea Gipuzkoako ekonomian

Basogintza-, nekazaritza- eta abeltzaintza- sektorea eskualdeko ekonomiaren (Barne Produktu Gordina- BPG) % 0,4 da.


Ikus dezakegunez, ehuneko txikia da. Sektore horren barruan, abeltzaintza % 50 da, nekazaritza % 36 eta basogintza % 14.




Konparazioa: pisu ekonomikoa vs. pisua lurraldean

Bi grafiko horiek batera ikusita, deigarria da basogintza-, nekazaritza- eta abeltzaintza- sektoreak lurzoruaen %61,6 erabiliz, ekonomiaren % 0,4 baino ez duela hartzen.

Basogintza, nekazaritza eta abeltzaintza lurzorua




Barne Produktu Gordina (Pisu ekonomikoa)




Sektorearen barruko konparazioa: pisu ekonomiko vs. pisua lurraldean

Sektorearen barruko konparazioa ere interesgarria da. Nekazaritza-sektorea da lurzoru gutxien erabiltzen duena, baina ekonomian pisu handiagoa du azalera-unitateko dagokiona baino. Kontrakoa gertatzen da basogintza-sektorearekin, hartzen duen azaleraren aldean oso pisu txikia baitu ekonomian.

Barne Produktu Gordina (Pisu ekonomiko)



Lurzoruaren erabilera (lurraldean duen pisua)



Araututako jarduera eta Aldundiaren eskumena

Basogintza-, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen jarduera gero eta arautuago dago Europar Batasunean, autonomia-erkidegoko administrazioan, foru-administrazioan (Aldundia) eta toki-administrazioan.

Jarduera ekonomiko arautua da bere merkatua baldintzatzen duten legezko eskakizun edo betekizun batzuk betebeharra.

Erregulazio edo araudi horiek ingurumenarekin, osasunarekin, elikagaiekin eta abarrekin dute zerikusia. Badira helburuak betetzeko diseinatutako araudiak, sektoreko eragileen lankidetzat bilatzen dutenak, eta badira jarduera sektoriala mugatzen duten arauak, beste politika sektorial edo zeharkako batzuetatik eratorriak, hala nola ingurumenekoak.

Erregulazioak nahitaez bete beharrekoak dira, araudi horiek ezartzeko denborak zehazten dituzte, eta kudeaketa-praktika jakin batzuen erabilerari mugak jartzen eta beste batzuk sustatzen saiatzen dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa osoko (hiri-eremuan eta itsasertzean izan ezik) mendien eta basogintza-jardueraren arloan eskumen eksklusiboa du. Gainera, honako arlo hauetan garatu eta betearazteko eskumena du: landare-osasuna; nekazaritza-erreforma eta -garapena; nekazaritzako dibulgazioa, sustapena eta gaikuntza; mahastizaintza eta enologia; animalien ekoizpena eta osasuna; landare-ekoizpena (haziak eta mintegietako landareak izan ezik), eta landa-ingurune azpiegitura eta zerbitzuei dagokien guztia.

Basogintza-, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen onurak

Garrantzi historikoa eta elikagai-iturria


Gainerako Lurralde Historikoetan bezala, Gipuzkoan ere laborantza-lurra eta larreak kudeatu dira, zeinak gizakiak eta animaliak elikatzeko iturritzat hartu diren, baso-lurrekin batera, zurezko eta beste ondasun batzuetako iturri gisa. Hala ere, gizakiaren, bizitzaren eta ekonomiaren ikuspegi hori beste ikuspegi sozial, ingurumeneko eta ekosistemiko batzuekin batera bizi da gaur egun, eta epe luzera sistemaren iraunkortasuna bilatzen dute; beraz, zaila da alderdi horien guztien arteko oreka lortzea eta neurtzea.

Ezin dugu alde batera utzi lehen sektoreak duen garrantzia kulturean eta, bereziki, Gipuzkoako ohitura gastronomikoetan. Basogintza, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreak behar handiko ondasun eta zerbitzu zuzen ugari ematen dizkio gizarteari (adibidez, egurra, esnea, arraultzak, haragia, irina, frutak, barazkiak, etab.). Sektore hurbila da, eta gizartea baserriko produktuez hornitzen du, eskariari dagokionez eskala txikia izan arren. Kalkulatzen da elikagaien % 10 baino ez direla tokikoak, eta, neurri handi batean, kanpoko inportazioen mende dago.


Onura ez-ekonomikoak

Basogintza, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreak ondasun edo onura ugari sortzen ditu, eta horietako batzuk ondasun publikoak dira. Ondasun horientzat ez dago merkaturik, hau da, sektoreak ez du diru-sarrerarik jasotzen ekoizten dituen ondasun horiengatik. Horrela, beharrezkoa da sektorearen ekarpen ez-monetarioak azpimarratzea, besteak beste:

- Habitata, paisaia eta nortasun kolektiboarekin duen harremana. Paisaien edertasuna eta enklabeak dira, halaber, sektore turistiko bat ezartzeko eta garatzeko arrazoi nagusiak.
- Polinizazio-jarduera sustatzea. Intsektu polinizatzaileen populazioak mantentzen laguntzen da.
- Kultura. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera estentsiboa milaka urteko tradizioarekin lotuta dago, eta Gipuzkoako kultura-nortasun historikoaren parte da. Gipuzkoako abeltzaintza-jardueraren zati handi bat estentsiboa da.
- Lurzoruaren kontserbazioa (higadura saihesten da eta materia organikoa ematen da), lurzoruaren kutsadura saihesten da (ekoizpen biologikoa edo ekologikoa denean bakarrik, zeinek ez duten lurzoruarentzat kaltegarriak diren ongarririk erabiltzen).
- Nekazaritza-aniztasunaren kontserbazioa. Tokiko nekazaritza eta abeltzaintza estentsibo batek aukera ematen du beste lurralde batzuetan hazten edo landatzen ez diren tokiko espezie bereziak kontserbatzeko.
- Antolamendu eta erregulazio hidrikoa (ura xurgatzea eta atxikitzea)
- Karbono-atxikipena. Basoetan dagoen egur guztia atmosferan ez dagoen karbono metatua da, eta, beraz, ez dio klima-aldaketari eragiten.



Abeltzaintza estentsiboa lur handietan egiten da, abereek bazkatu behar dutelako, hain zuzen ere, animalia horiek hazteko eta larreak landatzeko leku handia erabiltzen delako. Abeltzaintza estentsiboak baliabide naturalak erabiltzen ditu neurri handi batean elikadura-iturri gisa. Abeltzaintza intentsiboan garrantzitsuagoa da instalazioa ekipatzea eta animaliak lur txikietan pilotzea.



“Mosaiko itxurako” paisaia bat, Gipuzkoan ohikoa dena, askotariko paisaia da, non landatutako soroak, baratzeak, ereindakoak, larreak eta hainbat baso motak elkarbitzen duten. Elementu horietako bakoitzak oztopoak jartzen dizkio suari. Horrela, sua motelago hedatu eta errazago itzaltzen da.

Erronkak eta zailtasunak

Errentagarritasun txikia

Errentagarritasun txikia da ustiategiak bertan behera uztearen arrazoa, batez ere, oso atomizatuta daudelako. Basogintza-industriaren kasuan, adibidez, ustiategien %93k 20 hektarea baino gutxiago dituzte, eta 17 ustiategik baino ez dituzte basoko Nekazaritzako Lan Unitate (NLU) 1 baino gehiago. Tamaina txiki horrek eskalako ekonomiak lortzeko zailtasuna dakar.



Errentagarritasuna. Eragiketa edo gauza jakin batek ematen dituen irabazien eta egindako inbertsioaren edo ahaleginaren artean dagoen erlazioa.



Nekazaritzako Lan Unitate (NLU) bat da pertsona batek urtebetean lanaldi osoan egiten duen nekazaritza-lana.



Eskala-ekonomiatzat hartzen da enpresa batek ekoizpen-kostu txikiagoan produktu gehiago ekoizteko duen gaitasuna, enpresa bateko ekoizpena hazi ahala kostuak murrizten baitira.

Nekazaritza-jarduerak, berez, beste jarduera ekonomiko batzuek baino errentagarritasun txikiagoa du, eta, beraz, ikuspegi ekonomikotik begiratuta, ezin du beste sektore batzuekin lehiatu balio erantsia eta kalitatezko lanpostuak sortzeko orduan: alde batetik, ustiategi txikiak direnez (orografia, klima eta beste arrazoi batzuegatik), kostu erlatiboa oso handia da (ez da gauza bera ustiategi handi batean edo txiki askotan makineria erostea). Gaur egun, inbertsio handiak behar dira makinak eta hornidurak erosi eta mantendu ahal izateko. Ekoizpen txikia dutenez, inbertsio horiek zuzenean eragiten diote prezioari. Horrek eskatzen du alde batetik ezagutza eta bestetik finantzazioa, baina sektorearen irabaziak gero eta txikiagoak dira.

Jarduera uztea

Errentagarritasun txikiaren ondorio zuzena nekazaritza- eta baso-jarduera bertan behera uztea da, eta horrek, aldi berean, nekazaritza- eta baso-lurrak bertan behera uztea dakar.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, baso-laguntzei buruzko dekretuaren azken deialdiko dirulaguntzen eskatzaileen batez besteko adina 64 urtekoa izan zen. Era berean, 1.210 dirulaguntza eskatzaileetatik 560k (% 46,2) 67 urte baino gehiago zituzten, eta 324k (% 26,7) 55 urte baino gutxiago. Jabeen eta nekazarien zahartzeari belaunaldien arteko errelebo falta handia gehitu behar zaio, sektorearen iraunkortasunean eragin zuzena baitu.

Belaunaldiz belaunaldi, nekazaritzan diharduten langileak eta establezimendu kopurua jaisten ari da.

Lurra eskuratzea eta finantzazioa dira nekazaritza-jardueran ezartzeko oztopo nagusietako bi. Familiarengandik jasotako lur kantitate batekin jarduera hasten duten gazteek zailtasun handiak dituzte lur kantitate hori handitzeko, lurraren mugikortasun baxuaren eta prezio altuaren ondorioz.

Gazteak izan daitezke nekazaritza-sektorearen egitura-aldaketaren buru. Nekazaritza-ustiategi bat gazteek kudeatzen dutenean, errentagarritasun handiagoa du eta batez besteko ustiategi batek baino lan gehiago sortzen du. Gazteek gehiago inbertitzen dute beren enpresetan eta prestakuntza hobea dute.

Diru-laguntzen eskatzaileak




1.210 eskatzaileetatik

46,2%
>67 urte

26,7%
<55 urte

Zailtasunak lur kantitatea handitzeko



Mugikortasun baxua
eta prezio altuak

Gazteen kudeaketa nekazaritza-ustiategi batean




Errentagarritasun
handiagoa




Bataz besteko ustiategi
batak baino lan
gehiago sortzen du.

Gipuzkoako nekazaritza- eta arrantza-sektoreko lanpostuak



Gipuzkoako nekazaritza- eta arrantza-sektoreko lanpostuak. Iturria: Eustat (2022). Euskal Autonomi Erkidegoko enplegua, lurralde historikoaren, jarduera-adarraren (A-4), enplegu-motaren eta datu-motaren arabera. 2015 oinarria. 1995 - 2021.

Lurraldeko lanpostu guztiekiko ehunekoa



Lurraldeko lanpostu guztiekiko ehunekoa. Iturria: Eustat (2022). Euskal Autonomi Erkidegoko enplegua, lurralde historikoaren, jarduera-adarraren (A-4), enplegu-motaren eta datu-motaren arabera. 2015 oinarria. 1995 - 2021.

Landa-munduaren eta hiri-munduaren arteko deskonexioa

Beste zailtasun bat da landa-munduaren errealitatea hiri-mundutik modu mugatuan ezagutzea. Biztanle gehienak herriguneetan bizi dira, eta haien jarduera industriarekin, merkataritzarekin eta zerbitzuekin lotuta dago, alegia, bizimodu hiritarragoa dute. Hirigunetik lurraldearen eta landaren pertzepzioa da “kanpoan dagoela” (KALEA vs KANPOA binomioa), haratago, urrun, eta ikuspegi kontsumista batetik kudeatzeko joera dago, hau da, nekazaritza- eta abeltzaintza- produktuak merkatuetan erosten dira, eta gero eta gehiago supermerkatuetan. Aisian ere gero eta gehiago kontsumitzen da, baita lurraldearekin zerikusia duena ere, hala nola nekazalturismoa, mendi-zeharkaldiak, txirrindularitza/zikloturismoa, eskalada eta landa-munduarekin lotutako aisialdi-modu batzuk. Gero eta gehiago, nekazal mundua hiri mundutik aldentzen joateko arriskua dago, eta landa kaletik gobernatzeko tentazioan erortzea.



Aisia



Elikadura

Arriskuak eta erantzukizuna klima-aldaketan

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza kalteberatasun handiko eremuak dira, eta klima-aldaketak arrisku handiak dakarzkie.

Euskadin, Klimatek proiektuaren arabera, 2100erako, urteko prezipitazioa % 15-20 jaistea eta batez besteko tenperatura 1,5 eta 5 gradu artean igotzea espero da. Gainera, muturreko gertakarien maiztasun eta larritasun handiagoa aurreikusten da, eta mende amaierarako itsas mailaren igoera 29 eta 49 zm artekoa izango da.



↓ 15-20% , 2100 urterako



↑ 1,5 eta 5 °C



↑ Mende amaierarako
29 - 49 zm

Eragina abeltzaintzan

Beroak eragindako estresa da klima-aldaketaren baldintzetan hausnarkariak ekoizteko sistemei eragiten dien faktorerik garrantzitsuena, eta horrek produktibitate-galerak eta produktuaren kalitatean aldaketak eragiten ditu. Bazkarako, elikagaiaren produktibitatea eta kalitatea aldatzea espero da karbono dioxidoaren kontzentrazioetan, tenperaturaren, euri-ereduetan eta faktore estresagarrietan (ozonoa, adibidez) izandako aldaketekin. Izan ere, uda honetako (2022) bero-boladen, muturreko tenperaturen eta lehortearen ondorioz, abeltzaintzarako elikagai-eskuragarritasuna murrizten ari da neguan.

Elikagaien tokiko ekoizpena, egokitzeko estrategia gisa

Aurreko gertakarien ondorioz, gaur egun kezka handia dago elikadura burujabetzaren inguruan (tokiko eskalan), berau ulertuta elikagai osasungarriak kantitatean eta prezio eskuragarrietan eskuratzeko eskakizun moduan. Tokiko eremuan elikagai osasuntsuak eta kalitatezkoak edukitzea osasun publikoko helburu bihurtu da.

Klima-aldaketan eta ingurumenean duen eragina

Nekazaritza-jarduerak erantzukizun erlatibo txikia du klima-aldaketan. Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritza-sektorea emisio guztien % 3aren erantzule baino ez da, industriatik, energetik eta garraiotik oso urrun. Sektorearen jarduerak eragin handiagoa izan dezake biodibertsitate naturalean.

XXI. mendean lurreko eta ur gezako espezie asko desagertzeko arriskua areagotuko da, klima-aldaketak beste estres-faktore batzuekin duen elkarreraginaren ondorioz, hala nola habitataren aldaketarekin, gehiegizko ustiapenarekin, kutsadurarekin eta espezie inbaditzaileekin.

Lehen sektoreko jarduerak areagotzeak eta kudeaketa-praktika jakin batzuek presioa eta mehatxua dakarkioite biodibertsitateari. Bere berezko balioaz gain, biodibertsitatea funtsezkoa da nekazaritzarako, elikagaien ekoizpenerako eta garapen iraunkorrerako, eta, beraz, hori galtzea arrisku handia da gizartearentzat, baita sektorearentzat ere.

Etorkizuneko agertokiak

Sektorea eta, ondorioz, landa-ingurunea alde batera uzteak ingurumen-gertakari eta -arriskuak areagotzea ekar dezake, lur horiek ez bailirateke kudeatuak izango. Hauek dira aurreikusten diren ondorio nagusiak:

- Aurreko atalean zehaztutako onura ez-ekonomikoen galera: paisaia mosaikoa, nekazaritza- eta abeltzaintza-kultura.
- Ingurumen-gertakarien arrisku handiagoa (adibidez, suteak, uholdeak, gaixotasunak), eta maiztasun handiagoarekin.
- Zirkuitu laburreko hornikuntza eza. Ekoizleak eta kontsumitzaileak/erosleak lurralde berean ez daudenean karbono-aztarna handitzea dakar, elikagai gehiago inportatu beharko baitira.
- Enplegu-galera (kontuan hartuta Gipuzkoako enplegu osoaren % 1 inguru dela).
- Kultura galtzea (praktika tradizionalei/estentsiboei dagokienez).
- Lurralde-dinamika desorekatuak.
- Ondare ekologikoaren narriadura, biodibertsitatearen eta landa-paisaiaren galera
- Lurra gutxi erabiltzea, eta horrek lurzorua erabilera-arazoak dakartza.
- Tokiko mailan lehengaien ekoizpena murriztea (adibidez, elikadura edo zura).
- Industriaren lehiakortasun-galera.
- Gaizki egon baino lehenagoko egoerara itzultzeko kostu handiagoak epe luzera.

2006an³ egindako azterlan batek bi egoera planteatzen ditu:

1. **Agertoki moderatua:** nekazaritza-ekoizpena % 25 jaitsi da, eta abeltzaintza- eta baso-ekoizpena % 50.
2. **Agertoki terminala:** abeltzaintza-ekoizpena % 100 eta nekazaritza- eta baso-ekoizpena % 75 jaitsi dira.

Jarduera batzuetarako, jaitsiera horiek behin betikoak izango lirateke: haragi-industrian (hiltegiak, zatiketa-gelak, etab.), esne-industrian, pentsuetan, mahastizaintza- eta ardogintza-industrian eta sagardotegietan, eta zerrategian, ekoizpenaren beherakadak desagertzea ekarriko luke.

Zuzeneko kostu horiez gain, lurzorua eta basoak ez mantentzearen ondoriozko kostua ere baloratu zen, eta horrek 11 eta 13 milioi euro artean gehituko lizkieke urtero prozesu horrek eragindako galerei. Ekosistemen existentzia-balioa ez da kalkulatu, baina oso handia izan daiteke.

³Murua et al. (2006). Nekazaritza ezaren kostua Euskal Autonomia Erkidegoan. 2006ko apirila. Eusko Jaurlaritza.

1. Eranskina. Informazio praktiko gehigarria

Non eta noiz izango dira saioak?



Ordutegia :
Ostiraletan: 18:00etatik 21:00etara
Larunbatetan: 10:00etatik 18:00etara

Saioak Gipuzkoako hainbat herritan izango dira



Datak: 2022ko azaroak 4 eta 5

Orona Fundazioa, Jauregi Bidea
z/g, 20120 Hernani



Datak: 2022ko azaroak 25 eta 26

Tabakalera, Andre Zigarrogileen
Plaza 1, 20012 Donostia



Datak: 2022ko abenduak 16 eta 17

Olaso dorrea, San Pedro kalea 2.
20570 Bergara




Datak: 2023ko urtarrilak 13 eta 14

Batzar Nagusiak, Miramon
pasealekua, 164, 20014 Donostia

Nola iritsi lehen saioko lekura?



Lat. +43° 16' 36" | Long. -1° 59' 16"
GPS: 43.276, -1.986



BU11 Hernani>Donostia (Aietetik)

Parada: Galarreta Auzoa, 1

BU05 Andoain>Urnietia>Hernani>

Parada: Galarreta - Frontoia

Parte hartzeko baldintzak

Batzarraren saio guztietan parte hartzeagatik, parte-hartzaile bakoitzak 444€ jasoko ditu prozesuaren amaieran.

Ahal den neurrian, zure parte hartzeko baldintzak bermatzen saiatuko gara. Bilera baino lehen, zurekin harremanetan jarriko gara gai hauei buruz galdetzeko:



Hizkuntza ezagutza. Saioak euskaraz zein gaztelaniaz izango dira; Euskaratik gaztelarrera eskatu da itzulpena, beraz testu hori egokitu beharko dugu: saioen edukiak jarraitu ahal izatea bermatuko dugu.



Zure zaintza-erantzukizunak, beharrezkoa izanez gero, saioetan zauden bitartean zaintza-zerbitzu bat kudeatzeko.



Zure garraio-beharrak, behar izanez gero antolatuzko. Era berean, saioetan eskainiko diren catering zerbitzuetan kontuan hartu beharreko elikadura-eskaera espezifikoei, alergiari, intolerantziei eta abarri buruz galdetuko dizugu.

Zer jakin edo egin behar dut Herritarren Batzarraren aurretik?



Ez duzu gaiaren ezagutzarik izan behar, ezta parte hartzeko aditua izan behar ere; izan ere, lehenengo bi saioetan beharrezko informazio guztia jasoko duzu, gero proposamenak egin ahal izateko.



Ez da beharrezkoa modu espezifikoan janztea; eroso sentitzen zaren arroparekin etor zaitezke.



Ez duzu jendaurrean hitz egin behar nahi ez baduzu. Zure ikuspuntua eta bizi-esperientzia entzun eta azken gomendioetan sar dadin, dinamiketan parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

Eta zer gertatuko da Herritarren Batzarraren ondoren?

Azken saioan (2023ko urtarrilaren 14an), Herritarren Batzarrak bere gomendioak aurkeztuko dizkie Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariari. Aldundiak ebaluatu egingo ditu, bideragarriak diren aztertuko du, eta gomendio bakoitzari jendaurrean eta idatziz erantzun dio, hiru uneetan: jaso eta 2 hilabetera, 6 hilabete geroago eta 18 hilabete geroago. Aldundiak inplementatuko diren gomendioen berri emango du, gomendio batzuk zergatik ez diren inplementatuko azalduko du, eta inplementazioaren jarraipena egingo du 18 hilabeteetan zehar.

2023ko martxoaren 15ean, arratsaldean, Aldundiak Batzarraren gomendioei erantzuteko lehen saio bat antolatuko du, eta gonbidatuak izango zarete.

2. Eranskina. Herritarren Batzarra antolatzeko eta inplementatzeko batzordeak

Jarraipen Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia:

Diputatu Nagusiaren arloa, Sebastian Zurutuza, Estrategia zuzendaria

Gobernantza Arloa, Mikel Pagola, Herritarren Partaidetzarako zuzendaria

Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurunearen Saila, Arantxa Ariztimuño, Mendietako eta Landa Inguruneko zuzendaria

Alderdi politikoak (batzarkide-taldeen ordezkariak)

Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, Xabier Altuna

EH Bildu, Igone Lamarain

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Aitor Gonzalez

Elkarrekin Gipuzkoa, Javier Busselo

Herri Batzarkide Mistoa, Juan Carlos Cano

Behatzaileak

Eusko Jaurlaritza, Alberto Ansuategi, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza zuzendaria

EUDEL, Gurutze Etxezabal

Interes-taldeak

ENBA, Euskal Nekazarien Batasuna, Xabier Iraola, Koordinatzailea

EHNE, Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna, Garikoitz Nazabal, Lehendakaria

Landaola, Gipuzkoako Landa Garapenerako Elkarleen Federazioa, Yurre Peñagarikano

LURGINTZA, Arantzazu Martiarena, Zuzendaria

ABELUR kooperatiba, Jesus M^a Lete

Etxalde, Maite Aristegi

MONDRAGON, Ibon Antero Intxausti, Iraunkortasunaren eta Gizarte Eraldaketaren arduraduna

Ekologistak martxan, Piter Encinas

Aranzadi, Mikel Etxeberria Okariz

Talde eragilea

Arantzazulab, Naiara Goia, Zuzendari Nagusia

TMeLab, Urko Aiartza, Zuzendaria

Deliberativa, Arantxa Mendiharat

Edukien batzordea

Jon Mikel Zabala Iturriagagoitia - Deustuko Unibertsitatea - Berrikuntzaren politika eta kudeaketako ikertzailea.

Leire Barañano - Neikerreko zuzendari nagusia. Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-zentro bat da, nekazaritzako elikagaien sektoreari eta ingurumenari balioa emango dion ezagutza eta zerbitzua sortzea bilatzen duena, Eusko Jaurlaritzaren helburuak hedatzen eta ingurunearen garapen ekonomiko eta soziala lortzen aktiboki lagunduz, horrela bere lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetuz.

Juan Luis Moragues - Deustuko Unibertsitatea eta abokatua - Administrazio-zuzenbidean aditua.

Leire Salaberria - USSE - Europa Hegoaldeko Basozainen Batasuneko zuzendari nagusia.

Alexander Boto Bastegieta - Ihoberen zuzendari nagusia - Ihobe Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikitako sozietate publikoa da. Green New Deal Euskadin sustatzeaz arduratzen da.

Elisa Sainz de Murieta - Ikertzailea Basque Centre for Climate Change (BC3) zentroan eta UPV/EHU. Ondorengo gaiak ikertzen ditu: klima-aldaketara egokitzea; itsas maila handitzea; inpaktu ekonomikoak.

